




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoa (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

SARRERA-ENTRADA	 GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA
	2006 MAY. 31
PK. / N.º	1457
EXP. / N.º	07/C/32/15/3

MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzetak, ARALAR Taldeko batzarkidea, idatzi honen bidez eta Batzar Nagusien Jarduerarako araudiari jarraikiz ondorengo eskaera hau egiten du:

Landa Garapeneko Foru Diputatuaren agerraldia, *Fusarium Circinatum* Niremberg onddoa insignis pinuan eragiten ari den gaixotasunak basoetan sortu duen egoeraren berri eman dezan. Baita ere, egoera horren aurrean, hartu beharreko neurriak zeintzuk izango diren edo eta zeintzuk izan daitezkeen azal dezan.

ZIOA

Maiatzak 28an, prentsaren bidez jakin izan genuen, *Fusarium Circinatum* Niremberg onddoa gure lurraldean, bereziki, kostaldean pinadiak kaltetzen ari dela. Berri horren aurrean kezkatuak geratu ginen.

Badirudi horren inguruan Landa Garapeneko departamentuak ikerketa lan bat egiten diharduela. Horren berri lehen eskutik izateari garrantzitsua deritzogu, egoera erreala zein den ezagutzeko. Eta ez hori bakarrik, egoera horren aurrean departamentuaren asmoak zeintzuk diren jakiteari ere interesgarria deritzogu.

Donostian, 2006ko maiatzak 31

Rebeka Ubera Aranzeta
ARALAR BATZARKIDE TALDEA